

Lankidetz Kontseilu Sektoriala – Ohiko saioa Consejo Sectorial de Cooperación – Sesión ordinaria

| | |
|---|--|
| Deialdia egin duena Convoca | Donostiako Udala Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| Data, tokia eta ordua Fecha, lugar y hora | 2017ko ekainaren 28an / 28 de junio de 2017 Ghandi Aretoa. Aiete Jauregia / Sala Ghandi. Palacio de Aiete 16:00etan / A las 16:00 horas |

GAI ZERRRENDA:

ORDEN DEL DÍA:

| | |
|--|---|
| <ol style="list-style-type: none"> 1. Aurreko bileraren akta onartzea, ontzat joz gero. (ikusi erantsitako artxiboetan aktaren zirriborroa: 2017-04-06) 2. Donostia Lagunkoia plan estrategikoaren aurkezpena 3. Batzorde Iraunkorren bokal erdien berritzea irailerako. 4. Lan Taldeak. 5. 2017 diru laguntza deialdiaren egoeraren berri ematea. 6. Azken informazioak: <ul style="list-style-type: none"> • Kultur Aniztasun arloak antolatutako Zurrumurruen aurkako ikastaroa. • DSS2016-ren "Mapaketa kolektiboko kita" lanabesaren ematea. 7. Galderak eta zalantzak. 8. Datozen ekitaldiei buruzko informazioa. | <ol style="list-style-type: none"> 1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior. (ver el archivo adjuntos del borrador del acta de 06-04-2017) 2. Presentación de Lagunkoia Donostia/San Sebastián Amigable. 3. Renovación parcial de las vocalías de la Comisión Permanente para septiembre. 4. Grupos de Trabajo. 5. Información sobre la situación de la convocatoria de subvenciones 2017. 6. Informaciones varias: <ul style="list-style-type: none"> • Curso Antirrumores organizado por Diversidad Cultural. • Entrega de la herramienta "Kit de mapeo colectivo" de DSS2016 7. Ruegos y preguntas. 8. Información sobre próximas actividades. |
|--|---|

BILERAN PARTE HARTU DUTE:

HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|--|
| KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA DEL CONSEJO | PSE-EE – Auzoetako eta Deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdintasuneko eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria PSE-EE – Concejala delegada de Barrios y Descentralización, Corresponsabilidad cívica, Igualdad y Cooperación |
| TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | <ul style="list-style-type: none"> • EH-BILDU • PSE-EE |
| ELKARTEAK, HERRITARRAK, GARRANTZI BEREZIA DUTEN GIZARTE TALDEAK ASOCIACIONES, CIUDADANO/AS, COLECTIVOS | <ul style="list-style-type: none"> • BAKEA ETA ELKARTASUNA • CALCUTA ONDOAN • EMAUS • HAURRALDE FUNDAZIOA • MEDICUS MUNDI GIPUZKOA |



| | |
|---|--|
| DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL | <ul style="list-style-type: none">• MUGARIK GABE• MUGARIK GABEKO EKONIMIALARIAK• MUGEN GAINETIK• MUNDUBAT• PHAGMA DRÖLMA• PROCLADE YANAPAY• PROYDE-PROEGA• SAHARAKO LAGUNEN ELKARTEA• SETEM• EUSKADIKO GGKEEN KOORDINAKUNDEA• TAU FUNDAZIOA• UNICEF |
| ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA EXCUSARON SU ASISTENCIA | <ul style="list-style-type: none">• ADSIS• Pertsona fisikoa• IRABAZI• PP |

| | |
|--|--|
| UDAL TEKNIKARIAK PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | Udal Zeharkakotasunaren Arduraduna Responsable de Transversalidad Municipal Kontseiluaren Idazkaritza. Lankidetza teknikaria Secretaría del Consejo. Técnica de Cooperación Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren zerbitzu burua Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social Lankidetza Ataleko burua Jefa del negociado de Cooperación |
| PARTAIDETZAREN DATUAK DATOS DE PARTICIPACIÓN | 19 Lankidetzako Kontseilu sektorialeko kideak, jarraian adierazten direnez gain: udalek 3 ordezkari tekniko (3 emakumezko eta gizonezko 1). •Emakumezkoak / Mujeres = 11 •Gizonezkoak / Hombres = 8 19 personas integrantes del Consejo Sectorial de Cooperación, además del personal técnico municipal: 3 personas (3 mujeres y 1 hombre). |
| KONTSEILUKO IDAZKARITZA: SECRETARÍA DEL CONSEJO: | Lankidetza - Cooperación: Aiete Jauregia, Aiete pasealekua, 65, 1./ 943481471 / lankidetza@donostia.eus |



SAIOAREN BILAKAERA: DESARROLLO DE LA SESIÓN:

| | |
|---|--|
| <p>1.- Aurreko bileraren akta onartzea, ontzat joz gero.</p> <p>Irabaziko ordezkariak zuzenketa bat egiteko eskatu du: argiago gera dadila Kontseiluak III. Plan Gidaria onartu zuela. Onartu dute proposamena, eta halaxe zuzenduko dute.</p> | <p>1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior.</p> <p>La representante de Irabazi ha pedido que se haga una corrección, pidiendo que quede más claro que el Consejo aprobó el III Plan Director. Se acepta, y se efectuará la corrección.</p> |
| <p>2.- Donostia Lagunkoia plan estrategikoaren aurkezpena.</p> <p>Donostia Lagunkoia hiri plan bat da, adintsuek gizarte bizitza eta dinamikako alderdi guztietan presente izatea eta parte hartzea sustatzen eta aldeztu duena. Bere barnean biltzen ditu hainbat proiektu eta jarduerak, helburu orokortzat dutenak adintsuen bizi kalitatea hobetzea eta, hedaturaz, Donostiako gizarte osoarena, komunitateak parte hartzeko prozesuak sortuz eta adintsuek herritar bizitzan duten ahalmena baliatuz.</p> <p>Azpimarratu dute erakundeekin lanarekin lotuta dagoela hori; izan ere, ezagutza eta esperientzia handiko adineko askok izan lezakete horietan parte hartzeko interesa. Galderak egiteko txanda bat ireki dute. Kontseiluko kideek interesa agertu dute Lagunkoia barruan zaintzaren gaia aztertzeko. Galdetu dute ikastetxeekin lanik egingo ote duten. Horrez gain, adierazi dute boluntarioak direla erakundeekin erronka handienetako bat; izan ere, erakundeek haien beharra dute, baina, aldi berean, kosta egiten zaie erakundeetara etortzen den jendeari kasu egitea eta bertan integratzea.</p> <p>Honekin batera doa proiektuaren arduradunak emandako dokumentazio osagarria.</p> | <p>2.- Presentación de Lagunkoia Donostia/San Sebastián Amigable.</p> <p>Donostia Lagunkoia amigable es un plan transversal del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián que promueve y favorece la presencia y participación de las personas mayores en todos los aspectos de la vida y de la dinámica social. Aglutina proyectos y actividades que tienen como objetivo general mejorar la amigabilidad de la ciudad y, con ello, mejorar la calidad de vida de las personas mayores y, por extensión, de toda la sociedad donostiarra, generando procesos de participación comunitaria, y aprovechando el potencial de los y las mayores en la vida ciudadana.</p> <p>Se subraya la vinculación con el trabajo de las entidades, ya que puede haber muchas personas mayores con amplio conocimiento y experiencia que puedan tener interés en participar en éstas. Se abre un turno de preguntas, en el que integrantes del Consejo muestran interés por el tratamiento de los cuidados dentro de Lagunkoia, preguntan si se va a efectuar trabajo con escuelas, y se menciona el voluntariado como uno de los grandes retos de las organizaciones, ya que éstas los necesitan, pero a la vez les cuesta poder atender e integrar a quienes se acercan a las asociaciones.</p> <p>Se adjunta la documentación complementaria facilitada por la responsable del proyecto.</p> |
| <p>3.- Batzorde Iraunkorren bokal erdien berritzea irailerako.</p> <p>Idazkariak azaldu du Batzorde Iraunkorra, Kontseiluaren motorra, kide hauek osatzen</p> | <p>3.- Renovación parcial de las vocalías de la Comisión Permanente para septiembre.</p> <p>La secretaria explica que la Comisión Permanente, motor del Consejo, está formada</p> |



dutela: lehendakaria (Lankidetzako zinegotzia), lehendakariordea (2013az geroztik, Calcuta Ondoan erakundeko Iñigo Eguren ari da kargu horretan) eta, gehienez ere, bost kide; horietako bat beti da GGKEen Koordinakundeko ordezkari bat (gaur egun, Iñigo Odriozola, TAUkoa). Gaur egun, hiru erakunde daude: Phagma Drolma, Haurralde eta Unicef. Kideak lau urtez behin berritu behar dira, baina aspaldi erabaki zuten bi urtez behin berritzea kideetako bi, arrazoi hauengatik: talde osoa hutsetik ez hasteko aldian-aldian eta txandatzeko gehiago izateko karguren bat duten pertsonen artean. Azkeneko batzordean, erabaki zuten oraindik Batzorde Iraunkorreko kide izan ez direnak gonbidatzea parte hartzera, eta eskatu dute irailean, gutxienez, bi erakunde egotea txanda hartzeko prest. Parekotasuna ere kontuan izan behar da, eta, horregatik, bereziki emakumeak animatu nahi dituzte parte hartzera.

Funtzionamendua dela eta, jakinarazi dute Kontseiluak osoko bilkura egin baino bi aste lehenago biltzen dela Batzorde Iraunkorra. Bilerak udaletxean izaten dira eta laburrak izan ohi dira, ordu bete ingurukoak. Orain arte, goizez egin izan dituzte, baina taldearen arabera jarriko dute ordua. Bestelako formulak ere bilatu izan dira, eta zenbait erakundek ordezkari batzuk bidaltzen dituzte Batzorde Iraunkorrera eta beste batzuk Kontseilura.

Erabaki dute Atalak email bat bidaliko diela oraindik Batzorde Iraunkorreko kide izan ez diren elkartei, irailean beren hautagaitza aurkeztera animatzeko.

por la presidenta (concejala de cooperación), el vicepresidente (cargo que desde 2013 recae en Iñigo Eguren, de Calcuta Ondoan), y un máximo de 5 vocalías, de las cuales 1 es siempre un/a representante de la Coordinadora de ONGD (actualmente, Iñigo Odriozola de TAU). Actualmente hay 3: Phagma Drolma, Haurralde y Unicef. Las vocalías se tienen que renovar cada 4 años, pero hace tiempo se acordó renovar 2 vocalías cada 2 años, para que no comenzara todo el grupo desde cero, y también para que hubiera más rotación de personas en los cargos. En la última comisión se acordó invitar a que las personas que aún no han sido miembros de la Comisión Permanente se animen a serlo, y se pide que en septiembre haya al menos 2 entidades dispuestas a tomar el relevo. Hay que tener en cuenta la paridad, por lo que se anima especialmente a las mujeres a participar.

Para hacer una idea del funcionamiento, se informa de que la Comisión Permanente se reúne 2 semanas antes de cada Pleno del Consejo, y suelen ser reuniones breves, de aproximadamente 1 hora, en el Ayuntamiento. Hasta ahora se viene haciendo por la mañana, pero el horario se definirá en función del grupo. También se han buscado distintas fórmulas, y en algunas entidades, son personas diferentes quienes van a la Comisión Permanente y quienes van al Consejo.

Se acuerda que desde el departamento se enviará un e-mail a las asociaciones que aún no han formado parte de la Comisión Permanente para animarles a presentar su candidatura en septiembre.

4.- Lan Taldeak.

- Aurrekontuak:

Ekainaren 26an, astelehenean, aurrekontuen lantaldea elkartu zen. Hala, denei azaldu dizkiete han ateratako ondorioak, aktan jasotakoak. Ondoren, Mugarik gabeko Ekonomialarien ordezkariak, talde horretako kide den aldetik, azaldu du lankidetzazuzenera % 37 bideratzen dela gaur egun, eta hori oso balio altua dela beste erakunde batzuekin alderatuz (% 20 inguru da horietan). Eskatu

4.- Grupos de Trabajo.

- Presupuestos:

El lunes 26 de junio se reunió el Grupo de Trabajo sobre Presupuestos, y se explican las conclusiones del mismo, recogidas en acta. A continuación, el representante de Economistas sin Fronteras, integrante del grupo, menciona que la cooperación directa está en estos momentos en un 37%, un valor muy alto en comparación con otras instituciones, que rondan el 20%. Se pide que se mantengan los



dute hitzarmenak mantentzeko, baina igoerarik bada, lehia askeko diru laguntzak areagotzeko erabil dadila diru hori. Horrez gain, esan dute lantaldeak sortzeko ekimena aintzat hartzen dutela eta eztabaidara ekarri nahi dutela Lankidetzako aurrekontua nola banatu Lankidetzako Kontseiluaren erabakia izateko eskaera.

Lankidetzako zinegotziak esan du Kontseiluko gainerako erakundeei bidaliko dietela lantaldearen akta eta gogorarazi du Gobernuarekin landu behar dituela erabakiak. Taldearen proposamenei dagokienez, adierazi du, esate baterako, badela eskaera bat Ekialdeko Europako haurrei harrera egiteko diru laguntza Gizarte Ekintzaren esku uzteko; izan ere, beldur da Lankidetzak bere gain hartzen ez badu ez ote den inorena ez den gai gisa geldituko eta ez ote dioten laguntza jasotzeari utziko.

Mundubateko ordezkariak azpimarratu du garrantzitsuena dela Lankidetzaren aurrekontu programa ez izatea beste atal batzuetan sartzen ez den hori hartzen duen zakua, baizik eta argi izan behar dela zer den lankidetzak eta zer ez. Horrez gain, eskatu dute argi berezi daitezela giza eskubideen, berdintasunaren, lankidetzaren eta bestelakoen arteko mugak.

GGKEen Koordinakundeko ordezkariak proposatu du Kontseiluak berretsi ditzala lantaldearen gomendioak, horiek izan daitezen, erakunde guztientzat, aurrekontuetan eragiteko tresna.

Aurrekontuen prozesua jadanik hasita dago, baina negoziazioa udazkenean izan daiteke; hala ere, Mugen Gaietik erakundeko ordezkariak adierazi du berandu izango dela orduan eta komeni dela jadanik proposamenak izatea. Erabaki dute hurrengo egunean bidaltzea akta Kontseiluko kide guztiei eta astebeteko epea ematea, beste ekarpenik badago ere.

Hartutako konpromisoei dagokienez, Lankidetzako zinegotziak oraindik ez daki zer lortuko duen, baina saiatuko da ahal den gehiena lortzen.

convenios, pero que cualquier subida que se obtenga pase a incrementar las subvenciones de libre competencia. Se comenta también que se valora la iniciativa de crear Grupos de Trabajo, y que desean traer al debate la petición de que la distribución interna del presupuesto de Cooperación pase a ser decisión del Consejo de Cooperación.

La concejala de cooperación dice que se reenviará el acta del Grupo de Trabajo a las demás entidades del Consejo, y recuerda que tiene que trabajar con el Gobierno las decisiones. Respecto a las propuestas del Grupo, pone como ejemplo la petición de que la subvención para la acogida a los niños y niñas de Europa del Este pase a Bienestar Social, ya que teme que si no se asume desde Cooperación se pueda quedar en tierra de nadie y dejar de recibir la ayuda.

El representante de Mundubat subraya que lo importante es que Cooperación no sea el programa presupuestario que vaya asumiendo lo que no cabe en otros departamentos, sino que esté claro qué es cooperación y qué no. También se pide que se delimiten bien las fronteras entre DDHH, igualdad, cooperación, etc.

El representante de la Coordinadora de ONGD propone que el Consejo ratifique las recomendaciones del Grupo de Trabajo, para que éstas sean la herramienta común de incidencia de las entidades de cara a los presupuestos.

Respecto al proceso de los presupuestos, ha empezado ya, pero la negociación puede ser en otoño, aunque el representante de Mugen Gaietik argumenta que entonces sería ya tarde, y que conviene tener las propuestas ya. Se acuerda enviar al día siguiente el acta a todas las integrantes del Consejo y dar un plazo de 1 semana por si hay alguna aportación más.

Respecto a los compromisos asumidos, la concejala de cooperación no sabe aún lo que conseguirá, pero intentará que sea el máximo posible.



Aipatu dute laster prestakuntza ikastaro bat egingo dutela GGKEen Koordinakundean, eta iradoki dute Kontseiluko kide guztiak gonbidatzeko; izan ere, hor badira Koordinakundeko kide ez diren erakundeak eta talde politikoak ere.

EH Bilduko ordezkariak gogorarazi du bi gai desberdin daudela: bata da aurrekontu handiagoa lortzea eta horrek ehunekoan eragina izatea; eta bestea da aurrekontuaren barruko banakapena; horri dagokionez, adierazi du ahalik azkarrena egin behar direla aldaketak.

Eztabaida egin dute partaidetzaren eta partaidetza mailaren inguruan, bai eta Udala prest ote dagoen ere aurrekontu gero eta parte hartzaileagoak egiteko eta Kontseiluei erabakitzeko ahal handiagoa emateko. Zinegotziak erantzun du kontseiluek ez dutela erabakitzeko ahalik; izan ere, denek ez dute halakoetan parte hartzen. Horrez gain, gogorarazi du denak ez daudela parte hartzera ohituak, eta administrazioa ere ez dagoela horretarako prestatua, eta bidean oztopo asko daudela, nahiz eta ari diren pausoak ematen.

Mundubateko ordezkariak jakin nahi du zer proposamen zehatz eramango duen zinegotziak aurrekontuen negoziatzia. Zinegotziak erantzun du lantaldeak eskatzen duen % 0,53 hori lortzen saiatuko dela baina ez dakiela lortzerik izango duen. Mugarik gabeko Ekonomialarien ordezkaria kexu agertu da Administrazioak berak ez dituelako bere legeak betetzen.

Phagma Drölma erakundearen ordezkariak planteatu du zergatik laguntzen zaien Saharako haurrei oporrak Donostian igaro ditzaten eta beste batzuei ez. Mundubateko ordezkariak erantzun du, besterik gabe, Saharako herriari eta Fronte Polisarioari laguntza politikoa ematea dela kontua; uste du, adingabeentzat onuragarri izateaz gain, sentsibilizazio tresna indartsua ere badela hemen. SEADeko Lagunen elkarteko ordezkariak gehitzen du Fronte Polisarioarekin hartutako konpromisoa dela, eta heiek direla proiektuak babesteko lehentasuna ematen dutena. Horri gehitu behar zaio auzi historiko bat dela, Espainiako Estatuak deskolonizazio prozesurik ez egin izanaren ondorio, eta

Se menciona que pronto se va a organizar una formación en la Coordinadora de ONGD, y se sugiere que se invite a todos los miembros del Consejo, entre los que también hay entidades no miembros de la Coordinadora y grupos políticos.

La representante de EH Bildu recuerda que hay 2 temas diferenciados, uno es el posible aumento presupuestario que se consiga, y su repercusión en el porcentaje, y otro el desglose interno del presupuesto, afirmando que para esto último sí que hay que hacer las modificaciones lo antes posible.

Se abre un debate en torno a la participación, y sus niveles, y si el Ayuntamiento está por la labor de ir elaborando unos presupuestos cada vez más participativos y otorgando más poder de decisión a los Consejos. La concejala responde que no se otorga carácter decisivo a los Consejos porque no todo el mundo está en ellos, y recuerda que todas las personas no están acostumbradas a participar, ni la administración está preparada para ello, y hay muchos obstáculos por el camino, aunque se van dando pasos.

El representante de Mundubat pide saber qué propuesta concreta va a llevar la concejala a la negociación de presupuestos. La concejala responde que se va a pelear por el 0,53% que pide el Grupo de Trabajo, pero que no sabe qué posibilidades tendrá de conseguirlo. El representante de Economistas sin Fronteras se queja de que la propia Administración incumpla las leyes de que se dota.

La representante de Phagma Drölma plantea por qué sí se apoya que niños y niñas saharais pasen sus vacaciones en Donostia y que otros no. El representante de Mundubat replica que se trata simplemente de una cuestión de apoyo político al pueblo saharauí y al Frente Polisario, que considera que más allá de los beneficios para los y las menores, es también una potente herramienta de sensibilización aquí. La representante de la Asociación de amigos y amigas de la RASD añade que se trata de un compromiso adquirido con el Frente Polisario, siendo quienes priorizan los proyectos a apoyar. A ello se añade que es una cuestión histórica, derivada de la ausencia de un proceso de



| | |
|---|--|
| <p>Udaleko talde politiko guztiak bat etorri direla horretan azken 30 urtean.</p> <p>Haurraldeko ordezkariak adierazi du badirela zenbait azterlan frogatzen dutenak harreran etorritako haur horiek, handitzen direnean, Europan sartzeko betoa pairatzen dutela; beraz, argi dago haurren alde bat egiten dugula eta gero migratzaile eta errefuxiatuei eskubideak ukatzen dizkiegula. Berdintasuneko zinegotziak azpimarratu du eragin handia duela horrek hemengo familietan, desberdintasuna telebistan ikusi bakarrik ez baizik eta etxean bizi izan dutenen artean.</p> <p>Mugarik gabeko Ekonomialariek eskatu dute aurrekontua banatzeko erabiltzen ari diren irizpideen txosten bat egiteko: hitzarmenak, Oporrak Bakean, ekintza humanitarioa...</p> | <p>descolonización por parte del Estado Español, y que hay unanimidad entre los grupos políticos del Ayuntamiento desde hace 30 años.</p> <p>La representante de Haurralde menciona que hay estudios que demuestran que cuando estos y niños y niñas acogidas se hacen mayores, sufren el veto de entrada a Europa, con lo que queda de manifiesto que nos unimos en defensa de los niños y niñas y luego negamos sus derechos a las personas migrantes y refugiadas. La concejala, por su parte, destaca el impacto en las familias de aquí, cuando la desigualdad la has vivido en casa, y no sólo la has visto en la televisión.</p> <p>Economistas sin Fronteras pide que se haga un informe que recoja los criterios que se están usando para la distribución presupuestaria: convenios, Vacaciones en Paz, acción humanitaria...</p> |
| <p>- Ekintza humanitarioa eta larrialdiko laguntza:</p> <p>Oraingoz, erakunde hauek eman dute izena taldean: Mundubat, Gurutze Gorria, Haurralde eta Unicef. Taldeak ez du oraindik bilerarik egin, eta, dirudienez, irailean izango da, 2018an kontu-saila kudeatzeko irizpideak zein izango diren zehazteko. SEADen Lagunen Elkarteak eta Phagma Drölmak ere izena eman dute taldean.</p> | <p>- Acción humanitaria y ayuda de emergencia:</p> <p>De momento sólo se han apuntado a este grupo Mundubat, Cruz Roja, Haurralde y Unicef. Aún no se ha reunido, y se prevé que lo haga en septiembre, a fin de definir criterios para la gestión de la partida en 2018. La Asociación de amigas y amigos de la RASD y Phagma Drölmak se apuntan también al grupo.</p> |
| <p>- Diru laguntzen oinarriak berrikustea:</p> <p>Erakunde hauek eman dute izena talde honetan: Mundubat, Mugen Gaietik, Bakea eta Elkartasuna, Haurralde, Tau, Calcuta Ondoan, Setem eta EAJ. Batzorde Iraunkorrak erabaki du udan erakundeek proposamen bat landuko dutela, eta, aldi berean, atalak III. Planeko irizpideak aplikatuko dituela oinarrietan. Irailean, lan bilera bat egingo dute, denen artean proposamen bat taxutzeko eta behin betiko testua azaroaren amaierarako izateko. Datozen egunetan bidaliko dute deialdia, eta, horrekin batera, baita doodle bat ere, iraileko bilera eguna jartzeko.</p> | <p>- Revisión de bases de subvenciones:</p> <p>En este grupo se han apuntado Mundubat, Mugen Gaietik, Paz y Solidaridad, Haurralde, Tau, Calcuta Ondoan, Setem y PNV. En la Comisión Permanente se ha acordado que a lo largo del verano las entidades irán trabajando en una propuesta, y paralelamente desde el departamento se incorporarían los criterios del III Plan a las bases. Ya en septiembre se realizará una sesión de trabajo conjunta para perfilar una propuesta común y poder tener para finales de noviembre el texto definitivo. Se enviará la convocatoria en los próximos días, junto con un doodle para poner fecha en septiembre.</p> |



5.- 2017 diru laguntza deialdiaren egoeraren berri ematea.

Behin-behineko proposamena uztaillaren bukaerarako egongo da eskuragarri. Barne zailtasunak daude, espedienteen digitalizazioa dela eta, eta Administrazioa ez dagoelako prestatua digitalizazio horretarako.

5.- Información sobre la situación de la convocatoria de subvenciones 2017.

La propuesta provisional estará disponible a hacia finales de julio. Hay dificultades internas por la digitalización de los expedientes, y la falta de preparación de la Administración ante dicha digitalización.

6.- Azken informazioak:

- Kultur Aniztasun arloak antolatutako Zurrumurruen aurkako ikastaroa.

Kultur Aniztasunaren Atala zurrumurruen aurkako estrategia bat lantzen ari da, epe luzerako. Jadanik egin du administrazioa teknikarientzako eta udaltzaintzako prestakuntza ikastaroa, eta orain herritarrekin lan egiteko asmoa du. Jadanik elkarteetan eta gizarte mugimenduetan dabiltzan pertsonak prestatzen hasi nahi du, eragile diren aldetik eta biderkatzeko ahalmena duten aldetik, haien egunerokoan kulturartekotasuna oinarritzat hartuta lan egiteko eta zurrumurruen aurkako eragile gisa jarduteko tresnetan trebatzeko. Laster jasoko dute elkarteek ikastaroari buruzko informazioa. Urrian hasiko da ikastaroa, eta hiru saio izango dira:

- 1.- Zurrumurruen aurkako erantzunak (SOS arrazakeria)
- 2.- Kulturak eta identitateak: nola sortzen dira aurreiritziak, estereotipoak eta zurrumurruek? (Ikuspegi)
- 3.- Zurrumurruek kudeatzeko komunikazio eta emozio estrategiak. (Xarxa antirumors)

6.- Informaciones varias:

- Curso Antirumores organizado por Diversidad Cultural.

Desde el departamento de Diversidad Cultural se está desarrollando una estrategia anti-rumores a largo plazo. Ya se ha hecho formación con personal técnico de la administración, y con la policía municipal, y ahora se pretende trabajar con la ciudadanía. Por su agencia y capacidad multiplicadora, se quiere comenzar formando a personas que ya están involucradas en asociaciones y movimientos sociales, a fin de capacitarles en herramientas para que en su día a día puedan trabajar desde la interculturalidad y ejercer como agentes anti-rumores. Pronto se recibirá en las asociaciones la información sobre el curso, que se realizará en octubre, organizado en 3 sesiones:

- 1.- Respuestas anti-rumores (SOS Arrazakeria)
- 2.- Culturas e identidades ¿cómo se construyen los prejuicios, estereotipos y rumores? (Ikuspegi)
- 3.- Estrategias comunicativas y emocionales para la gestión de los rumores. (Xarxa antirumors)

- DSS2016-ren "Mapaketa kolektiboko kita" lanabesaren ematea.

Europa Kultur Hiriburutzaren barruan landutako lanabes hau banatu dute. Elkarteren batek interesik badu eta Kontseilura etortzerik izan ez badu, badira ale gehiago atalean.

- Entrega de la herramienta "Kit de mapeo colectivo" de DSS2016.

Se reparte esta herramienta, elaborada en el marco de la capitalidad cultural europea. Si alguna entidad tiene interés y no ha podido venir al Consejo, hay más ejemplares en el departamento.

| | |
|--|--|
| <p>7.- Galderak eta zalantzak.</p> <p>Aurrekontuen lantaldeko kideek Lankidetzako zinegotziari eskatu diote 2018ko lankidetzako aurrekontuari buruzko informazioa izan bezain laster bidaltzeko erakundeei, hurrengo Kontseilura arte itxaron gabe. Zinegotziak hitzeman du hala egingo duela, ahal duenean.</p> <p>Bestalde, gogorarazi dute hurrengo Batzorde Iraunkorra irailaren 7an izango dela, eta Kontseilua, berriz, irailaren 21ean, 16:00etan, udaletxeko Udalbatza aretoan.</p> | <p>7.- Ruegos y preguntas.</p> <p>Integrantes del Grupo de Trabajo de presupuestos piden a la concejala de cooperación que en cuanto tenga información sobre el presupuesto de cooperación 2018, lo haga llegar a las entidades, sin esperar al siguiente Consejo. La concejala se compromete a hacerlo así, en cuanto pueda.</p> <p>Por otra parte, se recuerda que la próxima Comisión Permanente es el 7 de septiembre, y el Consejo el 21 de septiembre a las 16:00 en el salón de Plenos del Ayuntamiento.</p> |
| <p>8.- Datozen ekitaldiei buruzko informazioa.</p> <p>Laster hasiko diren jardueren buruzko informazioa eman dute.</p> | <p>8.- Información sobre próximas actividades.</p> <p>Se comparte información sobre las actividades que darán comienzo próximamente.</p> |
| <p>Beste aztergairik ez dela, 17:45ean amaitu da bilkura.</p> | <p>No habiendo más temas que tratar, finaliza la sesión a las 17:45h</p> |



▶ Lankidetzta
Cooperación